

V - BESTELAKOAK

URAREN EUSKAL AGENTZIA MEDITERRANEOKO ARROEN BULEGOA

Laminaciones Zabalandi SLtik datozen hondakin-ur sanitarioak isurtzeko baimena, Araian, Asparrenako udalerrian

Espediente-zenbakia: VDP-A-2020-0019.

Eskatzailea: Laminaciones Zabalandi SL.

Laminaciones Zabalandi SL enpresak baimena eskatu du hondakin-urak Araian isurtzeko, instalatutako arazketa-sistemaren bidez tratatzeko. Horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu du.

Hori guztia jendaurrean jartzen da, guztiak jakinaren gainean egon daitezen, hogeita hamar egun baliouduneko epearen buruan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta biharamunetik hasita, eskatu den baimenaren ondorioz nolabaiteko kalteren bat hartuko dutela uste dutenek erreklamazioak aurkez ditzaten lurralde-bulego honetan (Forondako Atea kalea 9, 01010 Vitoria-Gasteiz). Espedientea han egongo da ikusgai.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abuztuaren 24a

Ur-probetxamenduen arduraduna
AITOR BELDARRAIN URIONDO